

## Transkripzioa

Elkarrizketatuari buruzko datuak:

- 62 urteko emakume ezkondua, Etxarri Aranatzekoa, bost seme-alabaren ama, eta bi iloba dituena. Seme-alaba guztiak euskaraz alfabetatuak dira, eta gainera, bi semeren emazteak kanpotarrak dira, bata Iruñekoa eta bestea Bizkaitarra. Etxarri Aranatzeko euskalkia hitz egiterakoan nabari zaio euskara batuaren eragina, baina, hala eta guztiz ere, euskalkia nahiko aberatsa eta ongi gordea mantentzen duelako aukeratu nuen bera.
  
- *Iye... Ba...*
- Ba... Kar, kar, kar.
- *Nei bezu, hasi gettezke kontatzen zu ume...*
- Ume nintzeneko kontubek?
- *Bei, ba... pixkat nola..., ze eitten ziñuzkiyen bizi... egun normal batien, eskola fan, pensatzen det eskola fanen ziñetela, beye gio etxien de lan ein berko ziñuben seguraski, ezta?*
- Eskola faten nintzen bei, beye zettekuenien, beti de ez.
- *Egunio ez?*
- Egunero ez... Egunero bei, beye txanda bat izendu nen... ba, eskola bakarria faten nintzela.
- *Nola, eh... Klase bakarria?*
- Klase bakarria. Goize, o goizekua, o aatsaldekua. Eta... faten nintzen aatsaldekua, zengati arratsaldeko... aatsaldekuen eitten giñuben, goizien fan eztanak goizien emandako lanak o... meistrubek eman zittubenak, eta, gaiñera, ah... josi o, bordatu o, eitten giñuzkiyen ba, arratsaldien, arratsaldeko klasie izeten zan erabat bordatu o... , bei, bordatu gehienbat, o bainikek o gauzok etteko.
- *Praktikuo orduben.*
- Bei, hori da, hori da. Neskatuek.
- *Neskatuek bakarrik.*
- Eta pensatzen nen hola biyek hartzen nittubela. Ikesten nen goizien ein zebiena eta gio, jostorratzai ematen non.
- *Kar, kar, kar.*
- Hori da. Hori izendu zan urte batien o hola. Ba, jeyo zienien bi... nere bi aizpek, karo, ya giñen... giñen asko, ta amak bier zuten, egiyes bier zuten, eta bueno, ba hori, goizes laguntzen noon, eta gero, ba arratsaldien, bi gauzek eitten nittuben.
- *Eta etxien hola... etxeko lanetan da amai zertan laundu izenduezu? Aparte esan dezu e... bi aizpe txikiyek jeyo zienien kasoeitten, beye geo, eztezu ein beste...*
- E.. zer lane... zer lanetan?
- *Bei, e...*
- Ni...
- *Animeliyakin o...*
- Ez, nik etxeko ganaduekin da ez nen lanik eitten, ez. Geyo arropa garbittu, konpondu, plantxatu debei. Orduben, nola labadorik e... Bueno, asi zien bei, ni... ni hasi nintzenien arropa garbitzen e..., labadora..., bazan bat ba, Otsein marka, bei, jarri ber zenon utse, jabonak, eta gero banan-banan e... atia, akklaratu, lejiyen jar ber bazien lejiyen... Gero eskus e arropa asko, orduko pantalonak eta, bakizu, Norit-ekin garbitzen giñuzkiyen. Ori,

geyenbat ori, bei, arropak txintxiliketu, plantxatu, konpondu, gauzok. Bei. Sukeldien e nintzen oso artiste. Geyo... ama geyo seyetzen zan, bei, ni beyo, bei.

- *Eta... ola, eztakit, denbora libreik uraitzen ziñuben jolasia fateko o olako gauzetako?*

- Ba... eztakit... asko ez. Pensa zazu, nobiyuekin, guai senarra dana, hogeitat urte beteta hasi nintzen eh? berakin, eta ez giñen astes atiatzen. Fraketan, larunbata gaubien zinia eta igandien e... aatsaldien..., eta astes, ezta beiñere de, ezta beiñere de. Kontatuko duzkizut xehetasun geyo? Kar, kar, kar !

- *Kar, kar, kar, zuk ikuskuezu, kar, kar, kar!*

- Akzidentiat izendu zen, ez? Bietzak moztu zittubenien, eta karo, ordubien bei, ostegunien o hasi giñen atiatzen, bei, nobiyo berri giñen guaño, eta aitte geyei utzik, aste erdiye, ostegunien o atiatzen giñela-ta esan zuten: “bueno, guai bajaakin doolako, beye..., beye gero, berri... beixee, buelta lenengota e?”, ta nik e, “bei, bei”, ematen nen...jo, eztakit... konformidediat o..., nik eztakit, eztakit zer pentsatu. Asike, aldatu da pillo bat, ezta?

- *Bei, ezta?*

- Bei, pillo bat. Beya, ori zan, aste guzie etxien, goizetik gaubia... bei, goizetik gaubia lanien, o josten, nola josten ikes nen... pues, arropak, nee senidioiri, pues pantalonak eta, bei, inkluso kanzonzilluek ebei ta...

- *Ziorrek ein?*

- Bei. Telaskuek, eh? Pentsa zazu, guaiko...

- *Kar, kar. Guaiko fintasunik ez, ezta?*

- Bei, ola ola. Bei, eztakin ze hotseitten zobien tela zuriyairi..., eztakit, eztakit ze hotseitten zobien..., bei. Ola, yoosi pliego bat o... metro batzuk eta handik, ba, benga. Ez zaskabien guaiko gomak eta guiako elastizidediek eta... Boton batekin pixkat gizontzen bazien, Plast!

- *Kar, kar, kar*

- Bei, konpondu asko eitten giñuben, izugerri. Azpiko menyeriei e... ba... eztakit, joskure barin bazakabien erdiyen, erdis barna esaten genon, erdiko joskurre laskatu, baxtarrak e... erdie ekarri, haik e... josi... Ta petatxuek e ba, pillo bat, bei, bei. Ukulo... ukurondotan da... belaunek eta... Hori bei, ahal zan hobekina eh?, hori bei, ahal zan hobekina, bei. (05'28'')